



**KLARETAR IKASTETXEAK
I D E A R I O A**

**Klaretar Misiolariak
Euskal Herria**





1 Ebanjelizazio herkuntzan

Klaretar Misiolariak, San Antonio M^a Claret sortzailearen espirituaren jarraitzaile izanik, klaretar eskolaren proiektu ebanjelizatzailea sustatu eta bermatzen dute: eguneroko lan hezitzailean Jesukristoren Berriona aditzera ematea, pertsona izateko abenturari koherentzia eta aukera ematen dion indar alternatiboa baita.

Gure zentroek ondorengo lehentasun ebanjelizatzaileak dituzte:

- Fedean eta bizitzan oinarritutako hezkuntza.
- Gure zentroetan dauden ahulenganako kezka.
- Familiaren eta eskolaren arteko harremana sendotu.

2 Hezi nahi dugun pertsona

Klaretar Eskolak lortu nahi duen hezkuntza integralak jarraian azaltzen diren funtsezko balore hauek ditu:

- Bizitzaren eta historiaren zentzua Jainko Aita, Seme eta Espiritu Santuarengan aurkitzea.
- Jakinduria, inguru fisiko, sozial eta kulturalaren ezagumendu gisa.
- Honakoak eskuratzea: lan intelektualetarako teknikak eta ohitura, trebetasun instrumentalak eta gaitasun sozialak.
- Askatasun pertsonala, erabakiak hartzeko ezaugarri gisa.
- Ondasunen zentzu unibertsala izatea eta behartsuekin konpartitzeko ardura.
- Auto-estima, maitasuna, adiskidetasuna eta sexualitatea, pertsona guztien errealitatean integratua.
- Familia, bizitzaren eta hazkuntza pertsonalaren oinarritzko ardatz.
- Gizarte plural batean integratuta eta modu kritikoan bizitzeko artea.
- Kreatzioaren eta bizitza mota guztien aldeko sentsibilizazioa.



3 Hezkuntza Elkartea

Hauek dira Hezkuntza Elkartea osatzen dutenak:

- **ENTITATE TITULARRA**, Klaretar Misiolariak, hezkuntza proiektu ebanjelizatzaile honen sustatzailea eta arduradun nagusia.
- **IKASLEAK**, zentroaren jarduera guztien funtsa eta hezkuntzaren protagonistak.
- **HEZITZAILEAK**, bai irakasleak, bai irakasle ez direnak; Eskolak irakatsi nahi dituen balore guztien lekuko biziak, eta kristau kulturaren transmisore eraginkorrak, baita pertsona eta kristau izateko moduaren transmisore ere.
- **FAMILIAK**, hezitzailerik garrantzitsuenak, eta Eskolarekin batera beren semealaben hezkuntzaz arduratzen direnak.
- **IKASLE OHIAK**, zentroaren memoria bizia.
- **ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN** aritzen diren **ERAGILEAK**, hezkuntza osatzeko zenbait ekimenen sustatzaileak.

4 Misio Konpartitua

Hezkuntza Elkarteko kide guztiok espiritu bera eta misio bera konpartitzen dugu; elkarrekin konpartitzen ditugu, eta elkarrekin sortu ditugun eta kudeatu ditugun jardueren bitartez bilakatzen ditugu egia.

Daukagun onena eskaintzen dugu, ikasle bakoitzaren eguneroko hazkuntza integralean Jainkoaren Erreinua eraikitzeko. Familiak eta hezitzaileok geure gaitasunak, baliabideak, interesak, eskumen profesionalak eta giza eta erlijio sakontasuna batzen ditugu, haurrari eta gazteari ilusioz eta itxaropenez betetako etorkizuna eskaintzeko.





5 Hezkuntza estiloa

Pentsatzen dugu ikaslea bere dela bere hezkuntzaren protagonista eta egile nagusia, eta eskola garai guztietan zoriontsu izan dadin saiatzen gara. Horretarako:

- Hezkuntza Elkarteko kide guztien harreman sarea zaindu egiten dugu.
- Talde lana sustatzen dugu, eta tutoretza sistema eta laguntza pertsonala bultzatzen dugu.
- Ikasle bakoitzari, erritmo bakoitzari eta berezitasun bakoitzari egokitutako metodologia sustatzen dugu.
- Ikasleak eskola jardueretan parte hartzea nahi dugu.
- Fedean hezten dugu, eta eskolako pertsona guztien bizimoduak Idearioaren baloreak transmititu ditzen saiatzen gara.
- Gizartean parte hartze aktiboa eta arduratsua izan dezaten bultzatzen dugu.
- Konpromisoa hartzen dugu etorkizuneko erronkei aurre egiteko, etengabeko formazioa eta ebaluazioa eskainiz.

6 Eskola giroa

Eskolako giroa ona izatea ezinbestekoa da Idearioaren helburuak garatzeko.

Entitate Titularra horren guztiaren jakitun denez, eskola giro ona bultzatzen saiatzen da, eta zeregin horretan hezkuntza elkarteko kide guztiek laguntzen dute eta parte hartzen dute. Halaber, gure eskoletako hezkuntzaren kalitatea etengabe hobetzeko lan egiten du.

Idearioa, Zentroko Hezkuntza Proiektuan garatua eta zehaztua, eginkizun horretarako gida eta inspirazio iturri da.

